

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatu nagusiaren 160/2019 Foru Dekretua, apirilaren 10a, 2019ko ekitaldian ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzen deialdia onartzen duena

Arabako Foru Aldundiak, Arabako Lurralde Historikoaren garapen ekonomikoa sustatzeko duen zereginaren barruan, 2018an erabaki zuen sormenezko kultura industriei laguntzea, bereziki ikus-entzunezkoen sorkuntza sektorearen ekintzailetzari eta sendotzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 792/2018 Erabakiaren lehen xedapenean honakoa ezartzen da: "Arabako Lurralde Historikoaren 2018ko aurrekontu orokorrak 2019rako luzapen aldia, luzatu egiten da ebazpenen eta hitzarmenen indarraldia; hain zuzen ere, dirulaguntza arruntei edo kapital eragiketei dagozkien xedapen eta hitzarmenena, zeinen barsean gisa horretako gastuak egin diren 2018ko ekitaldian. Halaber, dirulaguntza eta eragiketa horiek sortutako gastu espedienteak izapidetu ahalko dituzte Arabako Foru Aldundiko sailek eta foru erakunde autonomoek."

Arabako Foru Aldundiaren asmoa da 2019an Arabako ikus-entzunezkoen industriari laguntzen jarraitzea.

Horiek horrela, proposatzen da ikus-entzunezkoen proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko dirulaguntzen deialdia egitea, betiere Diputatuen Kontseiluak martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bitartez onetsitako oinarri orokorren esparruan (ALHAO, 36. zk., 2012ko martxoaren 26koa), kontuan harturik ondoren foru dekretu hori Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Foru Dekretuak aldatu zuela (ALHAO, 23. zk., 2014ko otsailaren 26koa), hartara ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta behar bezala betetzearren publizitate, lehia eta objektibotasun printzipioak eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak. Horretarako, 180.000,00 euro egongo dira guztira, eta honela ordainduko dira:

95.000,00 euro, 2019ko ekitaldira luzatu den 2018ko ekitaldiko 19.5.19 "1.10601.0702.7700007 Sormenezko kultura industriak" aurrekontu partidatik.

Eta gainerako 85.000,00 euroak, 2020ko ekitaldiko "1.10601.0702.7700007 Sormenezko kultura industriak" partidako (19.6.20 taldea) konpromiso kredituaren kontura.

Horregatik guztiagatik, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreakaren Saileko diputatuak proposatuta, dagozkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2019ko ekitaldian ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzen deialdia onartzea. Deialdia dekretu honen eranskinetan jasoko da.

Bigarrena. Deialdi honen araubidea honakoetan oinarritzen da: Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretua, Ekonomia Sustapenaren Sailak lehiaketa bidez emango dituen diru-laguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen, ALHAOren 36. zenbakian, 2012ko martxoaren 26an argitaratu zena. Aurreko Dekretua aldatzen duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Foru Dekretua, ALHAOren 23. zenbakian argitaratutakoa, 2014ko otsailaren 26an, eta dekretu honen eranskinetan xedatutakoa.

Hirugarrena. Dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbateko osoa 180.000,00 eurokoa izango da, eta honela ordainduko da: 95.000,00 euro 19.5.19 "1.10601.0702.7700007 Industria kultural sortzaileak" partidaren kargura, Arabako Foru Aldundiak 2018ko ekitaldirako zuena eta 2019ko ekitaldirako luzatu zuena, eta gainerako 85.000,00 euroak 2020ko ekitaldiko konpromiso kredituaren kargura, 19.6.20 "1.10601.0702.7700007 Industria kultural sortzaileak".

Laugarrena. Ebazpen honen bitartez administrazio bidea bukatuko da eta Administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat eginez berraztertze aukerazko errekurtoa jarri ahal izango da Foru Gobernu Kontseiluan ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita bi hilabeteko epean eskumenak dituen jurisdikzioan.

Bosgarrena. Ekonomia Garapena eta Lurralde Oreka Saileko diputatuari eskumenak emango zaizkio deialdi hau zuzentasunez garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jarriko da.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 10a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren

eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatua

MARIA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA

ERANSKINA

2019KO EKITALDIAN IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK GARATZEKO ETA EKOIZTEKO ETA GIDOIAK IDAZTEKO LAGUNTZEN DEIALDIA

I. Kapituluak

Arau orokorrak

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea norgehiagoka araubidean eta funts galduan laguntzak ematea da 2019ko ekitaldian ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko.

2. artikulua. Laguntza motak

Hauek izango dira laguntza motak:

2.1. Zinema eta telebista proiektuak gauzatzeko laguntzak, deialdi honen II. kapituluaren ezarritako terminoetan.

2.2. Ikus-entzunezko lanen honako ekoizpen modalitateei emandako laguntzak, deialdi honen III. kapituluaren ezarritako terminoetan:

a) Zinemarako film luzeak eta sormen dokumentalak ekoizteko laguntzak (I. atala).

b) Film laburrak ekoizteko laguntzak (II. atala).

2.3. Gidoiak idazteko laguntzak, deialdi honen IV. kapituluaren ezarritako terminoetan.

3. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehienezko zenbatekoa

Deialdi honen bitartez araututako diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa 180.000,00 eurokoa izango da, eta honela ordainduko da: 95.000,00 euro 19.5.19 "1.10601.0702.7700007 Industria kultural sortzaileak" partidaren kargura, Arabako Foru Aldundiak 2018ko ekitaldirako zuena eta 2019ko ekitaldirako luzatu zuena, eta gainerako 85.000,00 euroak 2020ko ekitaldiko konpromiso kredituaren kargura, 19.6.20 "1.10601.0702.7700007 Industria kultural sortzaileak" taldea.

Zenbateko guztia aurreko artikuluan zehaztutako lau modalitateen artean banatuko da, honela:

- Zinema eta telebistako proiektuak gauzatzeko laguntzak: 40.000,00 euro.
- Zinemarako film luzeak eta sormen dokumentalak ekoizteko laguntzak: 80.000,00 euro.
- Film laburrak ekoizteko laguntzak: 40.000,00 euro.
- Gidoiak idazteko laguntzak: 20.000,00 euro.

Sailaren diputatu titularrari eskumenak ematen zaizkio Balorazio Batzordeak proposamena egin ondoren funts horiek berriz ere banatzeko dagokion ebazpenaren bitartez, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz. Era berean, emandako diru-laguntzak subrogatu ahal izango ditu deialdi hau oinarri hartuz erakunde onuradunek interes ekonomikoko taldeak eratzen dituztenean diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko, betiere horien xede soziala ekoizpen jarduerak egitea baldin bada eta erakunde berriak deialdi honetako onuradun izateko betekizunak betetzen baldin baditu.

4. artikulua. Onuradunak

4.1. Onuradunek egoitza soziala eta fiskala Arabako Lurralde Historikoan izan beharko dute.

4.2. Zinema eta telebistarako proiektuak gauzatzeko laguntzen eta ikus-entzunezko lanak ekoizteko laguntzen (2. artikuluko 2.1., 2.2.a. eta 2.2.b. modalitateak) onuradunak pertsona fisiko edo juridiko pribatu independenteak izan ahalko dira, eta horien Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafea bat etorri beharko da laguntza eskatutako jarduerarekin.

"Pertsona pribatu independenteak" izango dira Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 4.n) artikuluan hala definituta daudenak.

Onuradunak izan ahalko dira baita ere interes ekonomikoko taldeak. Ondorio hauetarako ekoiztetxe independenteekiko baliokideak izango dira IET taldearen barne dauden eta independenteak ez diren ekoiztetxeek zuzenean edo zeharka bere kapital sozialaren ehuneko 20 baino gehiagoko ehunekorik ez badute, Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 4.n).1.2. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez.

4.3. Gidoiak idazteko laguntzei dagokienez (2. artikuluko 2.3. modalitatea), onuradunak izan ahalko dira dagokion JEZaren epigrafean jarduera profesionaltzat gidoiak idaztea duten pertsona fisikoak.

4.4. Albo batera utzi gabe pertsona bakoitzak eta modalitate bakoitzerako gehienez ere bi proiektu aurkeztu ahal izatea, diru-laguntza bakarrik pertsona eta modalitate bakoitzeko proiektu batek jasoko du. Ezin izango da deialdi berean laguntza modalitate bat baino gehiagoan proiektu bera aurkeztu.

4.5. Edonola ere, kanpoan geratuko dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta jarduera asoziatiboak edo profesionalak gauzatzen dituztenak (elkartek, elkargo profesionalak, eta abar).

4.6. Onuradunek egunean izan beharko dituzte Gizarte Segurantzako zerga betebeharrak.

4.7. Ezingo dira onuradunak izan berdintasun terminoekin bat eginez emakumeen eta gizonen presentzia eta/edo parte hartzea galarazten dutenak. Salbuespena izango dira sexu

bakarreko kideekin eratuak daudenak, horien xede nagusia emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea edo emakumeen edo gizonen interes eta behar espezifikoak sustatzea baldin bada.

4.8. Arabako Lurralde Historikoaren diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua-ren 12. artikuluan zehaztutako betekizunak bete beharko dituzte.

4.9. Laguntza hauen aurreko deialdietan diru-laguntza jaso zuten proiektuak ezingo dira modalitate berean aurkeztu, eskaria aurkezten duten unean aurreko laguntza horri uko egin ez badiote eta jasotako zenbateko guztiak itzuli ez baldin badituzte, dirua kobratu izanez gero.

4.10. Aurreko betekizunak eskaria aurkezterako unean bete beharko dira eta diru-laguntzaren prozesu guztian mantendu beharko dira (emakida, betebeharra aintzatestea, ordainketa eta justifikazioa). Betetzen ez badira, laguntza ukatu edo itzuliko da, ez betetze horiek gauzatzen diren unearen arabera.

5. artikulua. Eskaerak aurkeztea

5.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau indarrean jartzean hasiko da eta hurrengo hilabete-ko egun berdinean bukatuko da, 14:00etan, edo egun hori baliogabea baldin bada hurrengo egun balioduneko 14:00etan.

5.2. Eskariak deialdi honetako I. eranskinean jasotako ereduaren arabera bete beharko dira eta laguntza proiektu eta modalitate bakoitzeko eskari bat aurkeztuko da.

5.3. Eskariak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Probintzia plaza 5. zenbakia, 01001 –Vitoria-Gasteiz) eta Ekonomia Garapeneko Zuzendaritzaren Ekonomia Garapeneko Zerbitzura zuzenduta egongo dira, albo batera utzi gabe Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan zehaztutakoa).

5.4. Eskariarekin batera deialdi honetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, laguntza eskatutako modalitatearen arabera.

5.5. Eskatzaileak baliozkotu egingo ditu Ekonomia Garapeneko Zuzendaritzak laguntzaren eskaera eremuan harremanetarako pertsona gisa adierazitako horren helbide elektronikora bidaltzen diren jakinarazpen guztiak.

5.6. Diru-laguntzaren eskaria aurkeztean eskatzaileak baimena emango du organo izapidegileak zuzenean 4. artikuluan adierazitako inguruabarrak egiaztatzeko, bereziki Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari dagokionez.

6. artikulua. Prozedura izapidetzeko eskumenak dituzten organoak

6.1. Prozedura Ekonomia Garapeneko Zerbitzuak izapidetuko du.

6.2. Gehenez ere laguntza modalitate bakoitzean Balorazio Batzorde bat eratu da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7. artikulua betez. Hala, Batzordeak honela eratu da egongo dira:

- Presidentetza: Ekonomia Garapeneko zuzendaria edo eskuordetua.
- Kideak: Laguntzen alorrean adituak edo profesionalak diren hiru pertsona, Garapen Ekonomikoko Zuzendaritzak izendatuak.
- Idazkaritza: Ekonomia Garapeneko talde teknikoko pertsona bat, hitz egiteko eskumena izango duena, baina bozkatzeko eskumenik izango ez duena.

Batzordea eratu dagoela onartzeko Ekonomia Garapeneko eta Lurralde Orekako foru diputatuak batzordea eratu aurretik ebazpena emango du, eta ebazpen hori jendaurrean erakutsiko da interesa dutenek legez ezarritako inguruabarrei eta terminoei uko egiteko eskubidea egikaritu ahal izateko.

Izendatutako Balorazio Batzordeko adituek edo profesionalek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio inguruabarretan ez daudela egiaztatzeko, konfidentzialtasuna bermatzeko, deialdi honetako irizpideekin bat eginez eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa proiektuak baloratzeko ez den beste helburu baterako erabiliko ez dutela adierazteko, eta ebazpen proposamena eman ondoren espedienteetako dokumentazio guztia prozeduraren izapidetze organoari itzuliko diotela jakinarazteko.

Diru-laguntza modalitate bakoitzeko Balorazio Batzordeak diru-laguntzaren emate/ukatze proposamenekin batera, zeintzuk ebazpenerako eskumenak dituen organora bidaliko dituen, txosten bat egingo du, eta txosten horretan sailkapen antolatua jasoko da emandako puntuazioen arabera, onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituzten eskariekin sortutakoa. Zerrenda hori erabiliko da onuradunek emandako laguntzari uko egiten badiote edo laguntza onartzen ez badute.

7. artikulua. Deialdiaren ebazpena eta jakinarazpena

7.1. Eskumenak dituen organoak, Balorazio Batzordeak hala eskatuta, dagozkion ebazpenak emango ditu; ebazpen horiek modu indibidualean jakinaraziko dira Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan ezarritakoarekin bat eginez.

7.2. Ebazpen honen bitartez administrazio bidea bukatuko da eta Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat eginez berraztertze aukerazko errekurtsioa jarri ahal izango da diputatu nagusiari ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita bi hilabeteko epean eskumenak dituen jurisdikzioan.

8. artikulua. Onuradunen betebeharrak

a) Berariaz onartuko dute emandako laguntza emakida jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean.

b) Laguntza emandako xede zehatzerako erabiliko dute.

c) Diru-laguntza jaso duen proiektua aurkeztutako eskariaren arabera onartutako terminoekin bat eginez egikaritu dute. Diru-laguntza emandako proiektuaren alderdiak edo elementuak aldatu nahi baldin badira horri buruzko eskakizuna egin beharko da aurretiaz Ekonomia Garapeneko Zuzendaritzan. Bakarrik aurretiazko baimena jaso duten aldatetak onartuko dira. Administrazio isiltasunak aldateta eskaria ezetsi dela esan nahiko du.

d) Arabako Foru Aldundiak egindako egiaztatze jarduketak beteko dituzte, finantza kontrolak eta/edo Kontu-hartzaitzak egindako kontrolak beteko dituzte eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoak beteko dute.

e) Eskariaren berri emango diote Ekonomia Garapeneko Zuzendaritzari eta/edo deialdi honetako gastu berdinak finantzatzeko administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik, nazionaletatik edo nazioartekoetatik bestelako laguntzak edo diru-laguntzak jasotzearen berri emango dute laguntza horiek jasoko dituztela jakitean.

f) Arabako Foru Aldundiak eskatzaileei aurkeztutako diru-laguntza eskaria baloratzeko egokitzen josten dituen azalpen eta agiri guztiak eskatu ahal izango dizkie.

g) Diru-laguntzen onuradunek argi eta garbi berariaz aipatu beharko dute Arabako Foru Aldundiaren lankidetzaren egiten dituzten publizitateko euskarrietan edo plataformetan. Era berean, aldundiaren finantzazioaren berri eman beharko dute jendaurrean, Arabako Foru Aldundiaren logotipoa jarriz diru-laguntza jasotako jardueran sortutako edo erabilitako erakusketa eta hepdapen bitartekoetan.

h) Deialdi honen laguntza modalitate bakoitzerako ezartzen direnak eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kargurako laguntzak eta diru-laguntzak jasotzearen ondorioz ezarritako gainerako betebeharrak eta zereginak.

i) Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan zehaztutakoak.

9. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea

Modalitatearen arabera ezarritako mugak albo batera utzi gabe, laguntzen zenbatekoak edonola ere ezin izango du bakarrik edo beste diru-laguntzekin, laguntzekin, sarrerekin edo baliabideekin bateratuta diru-laguntzaren jardueraren kostua gainditu. Gainfinantzaketa egonez gero, emandako laguntzaren kopurua murriztuko da dagokion gehieneko kopurura arte.

10. artikulua. Itzultzeko arrazoiak eta araubide juridikoa

Diru-laguntzak itzultzeko arrazoiak izango dira Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren aurreikusitakoak. Foru arau horretako 35. artikuluko f) apartatuak dirua itzultzeko ezartzen duen betebeharraren ez-betetze erabakigarritzat joko dira honako hauek:

– Diru-laguntza jasotzeko betekizun gisa zehaztutako Arabako gutxieneko baliabideen ehunekoa ez betetzeak diru-laguntzaren kopuru gutzia itzultzea sortuko du.

– Emandako diru-laguntza onartzean berariaz hartutako konpromisoak betetzen ez badira, konpromisoen jatorria erakunde onuradunak eskarian adierazitakoa baldin bada eta kontuan hartu badira eskaria baloratzeko, kalkuluak egingo dira berriz ere, eta espedientearen balorazioa datu errealak kontuan hartuz nolakoa izango litzatekeen kalkulatu da; gainerako parametroak ez dira aldatuko. Hori guztia, gutxienez diru-laguntza jaso zuen azken proiektuaren puntuazioa jasotzen ez bada itzulketa eskatzeko, edo hori baldin bada, diru-laguntza jaso ez zuen azken proiektuaren itzulketa eskatzeko.

Deialdi honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri orokorretan zehaztutakoaren eta bere aldatetan (Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Foru Dekretua) zehaztutakoaren menpe geratuko da, Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritakoaren aurka agertzen ez badira. Horrez gain, aplikatu beharreko gainerako xedapenak ere bete egingo dira.

II. kapituluak

Proiektuentzako laguntzak

11. artikulua. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduketak eta gastuak

11.1. Honako zinema eta telebista proiektuek jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak:

a) Zinemarako lanak:

– Fikzioa, animazioa, sormen dokumentalak: 60 minutu baino gutxiago ez dutenak.

b) Telebistarako lanak:

– Fikzioa, animazioa eta sormen dokumentalak (banakako proiektuak): 45 minutu baino gutxiago ez dutenak.

– Fikzioa eta sormen dokumentalak (serieak): Kapitulu bakoitzak 22 minutu baino gutxiago ez duenean.

– Animazioa (serieak).

11.2. Kasu guztietan ere "proiektua garatzea" izango da ikus-entzunezko ekoizpen bat prestatzea eta diseinatzea, ekoizpen fase aurreko lanak gauzatzeko hain zuzen ere.

11.3. Gastu hauek jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak:

- a) Lanaren egile eskubideak jasotzea.
- b) Gidoia idaztea: gidoia berriz ere idaztea edo egokitzea, kanpoko aholkularitza, itzulpenak. Jasotako diru-laguntzaren ehuneko 20 gutxienez ere gidoia idazteko erabiliko da.
- c) Promozionatzeko materiala diseinatzea eta sortzea: inprimatutako materiala, teaser-a, programa pilotua, story board-a, komunikazio bideak (webgunea, sare sozialak, eta abar).
- d) Marketin eta banaketa plana egitea.
- e) Koprodukzioko merkatuetara eta foroetara joatea: joan-etorrietarako eta ostatueterako gastuak eta akreditazioak.
- f) Casting-a eta kokapenak bilatzea.
- g) Ikerketa dokumentala, grafikoa (animazio proiektuetan) eta artxiboen bilaketa.
- h) Lana kudeatzeko langileen gastuak (gehienez ere aurrekontuaren ehuneko 15).
- i) Aurkeztutako proiektuarentzako aholkularitza juridikoa eta fiskala: aholkularitza eta koprodukzio, aurre salmenta eta lanaren eskubideko kontratuak eta proiektuan parte hartuko duten profesionalekin egindako kontratuak idaztea.
- j) Gastu orokorrak (gehienez ere aurrekontuaren ehuneko 5).

11.4. Onuradunak proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 50ekin baliokidea den ehuneko gutxienez Arabako Lurralde Historikoan bizi diren edo ezarrita dauden pertsona fisikoek eta juridikoek egindako lanetarako erabili beharko du. Koprodukzioa egonez gero ehuneko 50 hori onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza kuotari aplikatuko zaio.

11.5. Proiekturako aurrekontuak ez du ekoizpenaren aurrekontu osoaren ehuneko 20 gaindituko.

12. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Zuzentasunez betetako eskari inprimakiarekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dira:

12.1. Eskatzailearen agiriak:

12.1.1. Eskatzailea pertsona fisikoa baldin bada:

- a) NANaren fotokopia.
- b) Dagokion JEZe an altan emanda dagoenaren ziurtagiria.
- c) Zinematografia eta Ikus Entzunezko Arteen (ICAA) Institutuko Zinematografia eta Ikus Entzunezko enpresen erregistroaren I. atalean, ekoizpena, izena emanda dagoenaren ziurtagiria.

12.1.2. Eskatzailea pertsona juridikoa baldin bada:

- a) IFZren fotokopia.
- b) Eraketa eta estatutu eskriturak eta horien aldaketa eskriturak eta erregistro publikoetan izena emanda dagoenaren ziurtagiria.
- c) Dagokion JEZe an altan emanda dagoenaren ziurtagiria.
- d) Zinematografia eta Ikus Entzunezko Arteen (ICAA) Institutuko Zinematografia eta Ikus Entzunezko enpresen erregistroaren I. atalean, ekoizpena, izena emanda dagoenaren ziurtagiria.
- e) Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta egikaritzen duen ordezkapen ahalmenaren ziurtagiria. Horretarako, dagokion organoak emandako ahalduntze eskritura edo ziurtagiria aurkeztu beharko ditu.

12.2. Proiektuari buruzko dokumentazioa:

12.2.1. Eskatutako agiriak:

a) Proiektu berarentzako eskatutako eta jasotako laguntzen erantzukizunpeko adierazpena eta horien zenbatekoa, II. eranskinaren arabera.

b) Proiektua azaltzen duen memoria. Bertan jaso beharko da proiektu mota eta proiektuan aurreikusitako ekintza guztien deskribapen xehatua.

c) Gidoiaren sinopsia.

d) Gidoia, edo gidoirik ez badago, gidoiaren tratamendua (gehienez ere 30 orrialdekoa). Seriea baldin bada kapitulu baten gidoi osoa eta gainerako episodioen gidoiaren sinopsia.

e) Jatorrizko gidoiaren eta/edo lanaren jabetza eskubideen ziurtagiria, eta horrelakorik ez baldin badago, egiaztatu egin beharko da hitzartuta daudela eskubide lagapeneko kontratuaren aukera eta etorkizun baldintzak.

f) Proiektuaren aurrekontu banakatua, partiden arabera zehaztua. Horretan jaso beharko dira aurreikusitako gastu guztiak eta finantzazio plana, III. eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

g) Ekoizpenaren aurrekontu orientatzaile globala eta finantzazio plana.

h) Proiektuaren zereginak gauzatzeko gidoilariarekin eta zuzendariarekin sinatutako akordioa.

12.2.2. Agiri osagarriak:

a) Zuzendariaren eta gidoilariaren historial artistiko profesionala eta txarteldegietako emaitzen agiriak, jasotako sariak eta espezializatutako komunikabideetako kritikak, horiek baloratzea nahi izanez gero.

Zuzendariak eta/edo gidoilariak aurretik beste film luzerik egin ez baldin badu baina film laburrak egin baditu film labur horiek eta/edo telebista serieak dauden webguneetako estekak.

b) Koproduktoreak, ekoizle bazkidetuak eta banatzaileak bilatzeko plana, balorazioan kontuan hartua izan dadin.

c) Erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo interes gutunak, proiektuan parte hartuko duten arduradun artistikoei sinatuak. Horietan adierazi beharko da, hala badagokio, Arabako egoitza.

d) Ekoiztetxearen historiala (IV. eranskina) eta txarteldegietako emaitzen agiriak, jasotako sariak eta espezializatutako komunikabideetako kritikak, horiek baloratzea nahi izanez gero. Gainera, hurrengo bi urteetarako ekoizpen aurreikuspenak ere aurkeztu beharko dira proiektuen eratze maila adierazten duen dokumentazioarekin batera.

e) Hala badagokio, emakumeak zuzendaritza lanetan, ekoizpen exekutibo lanetan eta/edo gidoia lantzeko lanetan parte hartu izana egiaztatzen duten agiriak, adibidez kontratuak, edo kontratutik ez baldin badago eraginpeko pertsonen interes eskutitzak eta/edo erantzukizunpeko adierazpenak.

f) Egiatztatutako finantzazio mailaren ondorioetarako agiri baliodunak izango dira orokorrean eskatzailea ez den hirugarren batek emandakoak, besteak beste hauek:

– Erakunde emaileen diru-laguntza emakida ebazpenak.

– Transferentzien banku egiaztagiria. Horietan berariaz jaso beharko dira zenbatekoen jatorria eta helburua, emalea eta onuraduna, zenbatekoa eta kontzeptua. Gainera, kontratua edo eragiketaren agiria aurkeztu beharko dira, norberak egindako ekarpena ez baldin bada. Kasu horretan bakarrik ekarpenaren banku ziurtagiria aurkeztu beharko da deskribatutako datuekin.

– Mailegu polizak.

13. artikulua. Balorazio irizpideak

13.1. Balorazio Batzordeak jasotako eskariak aztertuko ditu eta ondorengo baremoarekin bat eginez alderdi guztiak ebaluatuko ditu:

a) Gidoiaren edo tratamenduaren kalitatea. Berriaz baloratuko dira orijinaltasuna, sormena, kalitate literarioa, egitura, garapena eta bideragarritasun zinematografikoa. (30 puntu).

b) Garapen aurrekontuaren egokitasuna eta finantzazio plana (25 puntu):

– Aurrekontua proposatutako proiektura nola egokitzen den (10 puntu).

– Finantzazio maila eta enpresaren arrisku ekonomikoa (10 puntu).

Puntuak proportzionalki banatzeko kontuan hartuko da finantzazio ehuneko gehiena eskaintzen duenak, gehienezko ehuneko 60ko finantzazio mugarekin, jasoko duela gehienezko puntuazioa. Ekoiztetxearen zuzeneko ekarpenak aurrekontuaren zenbateko guztiaren ehuneko 15era arte baloratuko dira.

– Koprodukziorako eta nazio mailan eta nazioarte mailan hedatzeko proiektuak duen potentzialtasuna. Horretarako koproduktoreen, ekoizle bazkidetuen eta banatzaileen bilaketa plana aurkeztu beharko da (5 puntu).

c) Proiektuak duen interesa. Berriaz baloratuko dira Arabako Lurralde Historikoko eta/edo bertako biztanleekiko errealitate kulturalarekiko, sozialarekiko, hizkuntzakoarekiko edo beste-lakoekiko dauden aukerak. (15 puntu).

d) Eraginpeko enpresa eta giza baliabideak: ekoiztetxearen curriculum, zuzendariarena eta gidoilariarena. Kontuan hartuko dira aurretik egindako lanak eta baloratu egingo dira aurretik egindako proiektuak, jasotako sariak, komunikabide espezializatuetan jasotako kritikak eta txarteldegietako emaitzak. Ekoiztetxeei dagokienez aurreikusitako etorkizuneko proiektuak ere baloratuko dira diru-laguntza eskaera aurkeztzen den unean horiek duten sendotze mailaren arabera (10 puntu).

e) Jatorrizko bertsioa euskaraz izatea. (10 puntu). Jatorrizko bertsioa euskaraz dagoela kontuan hartzeko eta 10 puntuak eskuratzeko, laguntza hauetarako aurkeztutako tratamendua edo gidoia euskaraz idatzita egon beharko da. Aukeraz gaztelaniazko itzulpena gehitu ahal izango da Balorazio Batzordeko kideek balorazio lanak errazago egiteko.

Gidoiaren tratamendua euskaraz aurkeztuz gero eta 10 puntuak eskuratuz gero, gidoi osoa euskaraz aurkeztu beharko da justifikazio unean.

f) Emakumeen parte hartzea zuzendaritza, ekoizpen exekutibo, gidoi, argazkigintza zuzendaritza eta musika konposizio lanetan. (8 puntu):

– Zuzendaria emakumea bada. (3 puntu).

– Ekoizle exekutiboa emakumea bada. (3 puntu).

– Gidoiaren idazlea emakumea bada. (2 puntu).

Baterako zuzendaritza, koprodukzioa edo baterako egileak eta abar baldin badira puntuak emakume kopuruaren proportzioa betez banatuko dira.

g) Proiektuaren ibilbidea (2 puntu). Puntu horiek emateko kontuan hartuko da aurretik Arabako Foru Aldundiak gidoiak sortzeko modalitatean emandako deialdietan laguntza jaso zuen ikus-entzunezko proiektua. Laguntza hori kontuan hartzeko diru-laguntza jaso zuen proiektua bukatuta egon beharko da eta diru-laguntza zuzentasunez justifikatuta egon beharko da deialdi horren araubidearekin bat eginez.

13.2. Aurkeztutako proiektu batek diru-laguntza jaso ahal izateko gutxienez aurretik adierazitako irizpide eta puntuazioetan 50 puntu eskuratu beharko dira.

13.3. Egindako balorazioaren oinarria eskatzaileek emandako froga elementuak izango dira, eta horiek Balorazio Batzordeak egiaztatu eta kontrastatu ahal izango ditu.

14. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

14.1. Gehienezko kopurua diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ehuneko 50 izango da, eta muga 10.000,00 eurokoa izango da.

Laguntza jaso dezaketen proiektuetatik azkenak diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa jaso ezin duenean beharrezko kontsignazio ekonomikorik ez dagoelako, bakarrik adjudikatu daitekeen zenbateko ekonomikoak jasoko du diru-laguntza, Balorazio Batzordearen arabera proiektuaren bideragarritasuna bermatzen baldin bada.

Modalitate horretako aurrekontu zuzkidura bukatzen ez baldin bada proposamenak falta direlako, proposamenek balorazio fasean eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditzen ez dutelako edo aurreko paragrafoan aurreikusitako gertakaria jazotzen baldin bada azken proiektuaren bideragarritasuna bermatu gabe, Balorazio Batzordeak soberan dagoen zenbatekoa 2.500 eurora arteko finantzazioa gauzatzeko bideratzea proposatu ahal izango du, gehi hasierako 10.000,00 euroko emakida proposatu ahal izango du aurreikusitako proiektuentzat, ezarritako diru-laguntzaren ehunekora iristen ez baldin badira.

14.2. Koprodukzioak baldin badira Arabako Foru Aldundiaren laguntza ez da inolaz ere ekoiztetxe eskatzailearen partaidetza errearen ehuneko 50 baino gehiagokoa izango, eta gutxienez azken ekoizpenaren ehuneko 25 izan beharko du.

14.3. Bestelako laguntza publikoak jasoz gero, guztien batura ezin izango da proiektuaren kostuen ehuneko 50 baino gehiagokoa izan.

15. artikulua. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea

15.1. Proiektuentzako laguntzen ordainketa justifikatu beharreko aurrerapen gisa egingo da. Hala, diru-laguntzaren ehuneko 75 ebazpena onartu ondoren emango da, eta gainerako ehuneko 25a diru-laguntzaren helburua justifikatu ondoren ordainduko da. Horretarako, atal honetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

15.2. Emandako laguntza justifikatuta dagoela onartzeko onuradunak Ekonomia Garapeneko Zerbitzuan honako dokumentazioa aurkeztu beharko du 2020ko urriaren 31 aurretik:

- a) Egindako jardueri eta jasotako emaitzei buruzko txostena.
- b) Gastuen eta diru-sarreraren laburpena.
- c) Jarduerak eragindako gastuen zerrenda, BEZa kanpo, datu hauekin: hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, agiria noiz eman den eta, hala badagokio, ordainketa eguna.
- d) Egindako gastuen justifikazioa, zuzentasunez eginda. Horretarako, jatorrizko fakturak edo kopia konpultsatuak eta ordainketa egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, gastu orokorrak salbuetsiz. Koprodukzio merkatuetara eta foroetara joateko gastuetarako, besteak beste ostatua, joan-etorriak edo dietak, ekimenaren ziurtagiria.
- e) Gidoi osoa eta zuzendutakoa.
- f) Gidoilariarekin eskubide lagapenari buruz egindako kontratua gutxienez bi urterako edo egingo den lanaren eskubideak erosteko aukera kontratua, gutxienez bi urterako.
- g) Lan planaren banaketa berria eta ekoizpenaren behin-behineko aurrekontu berria.
- h) Filmaketa lekuei buruzko dokumentazioa: argazki etiketatuak, baimenak, eta abar.
- i) Casting-etarako behin-behineko proposamenak.
- j) Marketin eta banaketa plan xehatua.
- k) Egonez gero, editatutako promozio materialen ale bana. Promoziorako eduki digitalak dituzten webguneen estekak.
- l) I. eranskineko eguneratutako erantzukizunpeko adierazpena.

15.3. Gainera, onuradunek egiaztatu egin beharko dute 11.3.b) , 11.4., eta 14.3. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela.

15.4. Kontuan izan beharko da emandako dirulaguntza aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren portzentaje bat dela; beraz, proiektuaren azken kostua aurrekontu hori baino gutxiago bada, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da. Albo batera utzi gabe 14.1. artikulua aplikatzea.

III. kapitulua

Laguntzak ikus-entzunezkoen ekoizpenerako

16. artikulua. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduketak eta gastuak

16.1. Ekoizpen modalitate hauek jaso ahal izango dituzte laguntzak:

a) Film luze zinematografikoak eta sormen dokumentalak ekoiztea, kapitulu honetako I. atalean ezarritako terminoetan.

b) Film laburrak ekoiztea, kapitulu honetako II. atalean ezarritako terminoetan.

16.2. Ezingo dute laguntzarik jaso 2019ko urtarrilaren 1aren aurretik estreinatutako lanek.

16.3. Diru-laguntza jaso ahal izango dute ekoizpen kostuek, Film baten kostuen aintzatespena eta ekoizlearen inbertsioaren aintzatespena arautzen duen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren 2. artikuluan aurreikusitako terminoetan.

17. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Modalitate honetako diru-laguntzen eskariarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

17.1. Eskatzailearen agiriak:

17.1.1. Eskatzailea pertsona fisikoa baldin bada:

a) NANaren fotokopia.

b) Dagokion JEZean altan emanda dagoenaren ziurtagiria.

c) Zinematografia eta Ikus Entzunezko Arteen Institutuko (ICAA) Zinematografia eta Ikus Entzunezko enpresen erregistroaren I. atalean, ekoizpena, izena emanda dagoenaren ziurtagiria.

17.1.2. Eskatzailea pertsona juridikoa baldin bada:

a) IFZren fotokopia.

b) Eraketa eta estatutu eskriturak, horien aldaketa eskriturak eta erregistro publikoetan izena emanda dagoenaren ziurtagiria.

c) Dagokion JEZean altan emanda dagoenaren ziurtagiria.

d) Zinematografia eta Ikus Entzunezko Arteen Institutuko (ICAA) Zinematografia eta Ikus Entzunezko enpresen erregistroaren I. atalean, ekoizpena, izena emanda dagoenaren ziurtagiria.

e) Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta egikaritzen duen ordezkapen ahalmenaren ziurtagiria. Horretarako, dagokion organoak emandako ahalduntze eskritura edo ziurtagiria aurkeztu beharko ditu.

17.2. Proiektuari buruzko dokumentazioa.

17.2.1. Eskatutako agiriak:

a) Proiektu berarentzako eskatutako eta jasotako laguntzen adierazpena eta horien zenbatekoa, II. eranskinaren arabera.

b) Proiektuaren azalpen memoria eta V. eranskina, proiektuaren datuekin.

c) Gidoiaren sinopsia.

d) Gidoia.

e) Jatorrizko gidoiaren eta/edo lanaren jabetza eskubideen ziurtagiria, eta horrelakorik ez baldin badago, egiaztatu egin beharko da hitzartuta daudela eskubide lagapeneko kontratuaren aukera eta etorkizun baldintzak.

f) Aurrekontu xehatua partiden arabera, ICAAren eredia jarraituz, araba.eus webgunean eskuragarri dagoena, "ekonomia garapenaren laguntzak"-en atalan.

g) Ekoizpen plana. Bertan jaso beharko dira aurreikusitako egutegia eta filmatze plana, denbora eta kokapenak. Animazio proiektua baldin bada izena eta lana gauzatuko den estudioaren IFK zenbakia.

h) Finantzazio iturriak, V. eranskinean ezarritako ereduari jarraiki. Horrekin batera ereduari adierazitako finantzazio iturria jaso dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, besteak beste erakunde emaileek emandako diru-laguntzen emakida ebazpenak, hirugarrenekin sinatutako ustiapen kontratuak, mailegu polizak, abalen bitartez bermatutako baliabide propioak (film laburrak direnean ez da abala beharrezkoa izango eta nahikoa izango da transferentziaren banku ziurtagiria aurkeztea. Ziurtagiri horretan berariaz agertu beharko dira jatorri eta helburu kontuak, agindu emailea, onuraduna, zenbatekoa eta kontzeptua) eta sinatutako kapitalizazio konpromisoak.

i) Fitxa teknikoa eta artistikoa.

j) Proiektua gauzatzeko proposatutako zuzendariaren onarpen idatzia.

17.2.2. Agiri osagarriak:

a) Zuzendariaren eta gidoilariaren historial artistiko profesionala eta txarteldegietako emaitzen agiriak, jasotako sariak eta espezializatutako komunikabideetako kritikak, horiek baloratzea nahi izanez gero.

b) Merkaturatze eta banatze plan xehatua.

c) Kontratuaren edo koprodukzio kontratuen kopia konpultsatua. Film luzeetarako:

– Nazioarteko koprodukzioak: Zinematografia eta Ikus Entzunezko Arteen Institutuak (ICAA) koprodukzio proiektua onartzeko ebazpena eta koproduttore guztiek sinatutako kontratuaren azken bertsioa.

– Koprodukzio nazionalak: Fede emaile batek legeztatutako sinadurak dituen kontratuaren azken bertsioa.

d) Ekoiztetxearen historiala (IV. eranskina) eta txarteldegietako emaitzen agiriak, jasotako sariak eta espezializatutako komunikabideetako kritikak, horiek baloratzea nahi izanez gero. Gainera, hurrengo bi urteetarako ekoizpen aurreikuspenak ere aurkeztu beharko dira, proiektuen eratze maila adierazten duen dokumentazioarekin batera.

e) Kontratuak, edo kontraturik ez baldin badago erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo sinatutako interes gutunak, hala badagokio egiaztatzen dutenak zuzendaritza, ekoizpen exekutibo, gidoi, argazkigintza zuzendaritza eta/edo musika konposizio lanetan emakumeek parte hartu dutela.

f) Banku erakundeak eskatzailearen kaudimen ekonomiko-finantzarioari buruz emandako ziurtagiria. Azken bi urteetako kontuak eta enpresaren antzinakotasuna.

g) Kontratuak, edo kontraturik ez baldin badago proiektuan parte hartuko duten sortzaileek edo langile artistikoek sinatutako erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo interes gutunak. Horietan adierazi beharko da hala badagokio, Arabako helbidea.

18. artikulua. Diru-laguntzen bateragarritasuna

Ikus-entzunezko ekoizpenarentzat beste diru-laguntzarik egonez gero, diru-laguntza guztien batura ezingo da izan kostuen ehuneko 50 baino gehiagokoa, salbuetsiz zailak diren ikus-entzunezko lanak, zeintzuek ehuneko 100era arteko diru-laguntza jaso ahal izango duten. Ikus-entzunezko lan zailak dira jatorrizko bertsiola euskaraz dutenak eta aurrekontu baxua (800.000,00 euro baino gutxiagokoa) duten film laburrak eta luzeak, eta aldi berean, zuzendararen lehenengo edo bigarren lanak direnak.

I. atala

Zinemarako film luzeak eta sormen dokumentalak ekoizteko laguntzak

19. artikulua. Laguntza jaso dezaketen jarduerak

19.1. Laguntza modalitate honen barnean fikziozko film luze zinematografikoak, animaziozko film luze zinematografikoak eta edozein hizkuntzatan sortutako sormenezko dokumentalak egongo dira.

19.2. Ondorio horietarako fikziozko eta animaziozko film luze zinematografikoak izango dira hirurogei minutuko edo gehiagoko ikus-entzunezko lanak, helburua zinema aretoetan proiektatzea dutenak.

19.3. Sormen dokumentalak izango dira gaia errealitatekin hartua dutenak eta lan orijinalak direnak, gai zehatz bati buruzko ikerketa edo analisi lanak, hirurogei minutu edo gehiago irauten dutenak, helburua zineman proiektatzea denean eta berrogeita bost minutu edo gehiago irauten dutenak helburua telebistan erakustea denean.

19.4. Onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenaren aurrekontuaren ehuneko 30ekin baliokidea den ehunekoa gutxienez Arabako Lurralde Historikoan bizi diren edo ezarrita dauden pertsona fisikoek eta juridikoek egindako lanetarako erabili beharko du. Koprodukzioa egonez gero ehuneko 30 hori onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza kuotari aplikatuko zaio.

20. artikulua. Balorazio irizpideak

20.1. Modalitate horretako eskariak bi fasetan baloratuko dira, ondoren zehaztuko diren irizpideen eta baremoen arabera:

20.2. Lehenengo fasea: ekoizpen proiektuaren balorazioa. (65 puntu).

a) Proiektuaren finantzazioa. (23 puntu).

Puntuak emateko kontuan hartuko dira proiektuak izango dituen finantza baliabideen ehunekoa eta proiektuaren egikaritzearen aurrekontu osoa. Horiek justifikatzeko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzeko eskubidea adierazten duten hirugarrenekin sinatutako ustiapen kontratuen egiaztagiriak aurkeztuko dira (eskubideen lagapen kontratuak, koprodukzio eta banaketa kontratuak), baita banku abalaren bitartez berrantolatutako baliabide propioak edo elkarrekiko bermea duen sozietatearen abala eta film luzearen aurrekontuaren ehuneko 15era arteko kapitalizazioak ere.

Puntuak proportzionalki banatzeko kontuan hartuko da finantzazio ehuneko gehiena eskaintzen duenak, gehieneko ehuneko 60ko finantzazio mugarekin, jasoko duela gehieneko puntuazioa.

b) Filmaketa Arabako lurralde historikoan egitea. (13 puntu).

Puntu horiek filmaketa Arabako lurralde historikoan gauzatutako egunen arabera banatuko dira, aurreikusitako filmaketaren iraupen osoa kontuan hartuz.

Animazio lanak direnean filmaketa egun bat animazio estudioan lan egindako egun bat izango da eta Araban filmatu dela kontuan hartuko da animazio estudio horren egoitza soziala eta fiskala Arabako Lurralde Historikoan kokatuta baldin badaude.

c) Eraginpeko giza baliabideak. (10 puntu).

Zuzendariaren eta gidoilariaren curriculumak. Kontuan hartuko dira aurretik egindako lanak eta baloratu egingo dira aurretik egindako proiektuak, jasotako sariak eta komunikabide espezializatueta jasotako kritikak.

Baterako zuzendaritza edo egiletza lanak direnean proportzionalki kontuan hartuko dira.

d) Emakumeen parte hartzea zuzendaritza, ekoizpen exekutibo, gidoi, argazkigintza zuzendaritza eta musika konposizio lanetan. (10 puntu):

- Zuzendaria emakumea bada. (3 puntu).
- Ekoizle exekutiboa emakumea bada. (3 puntu).
- Gidoiaren idazlea emakumea bada. (2 puntu).
- Argazkigintza zuzendaria emakumea bada. (Puntu 1).
- Musika konpositorea emakumea bada. (Puntu 1).

Baterako zuzendaritza, koprodukzioa edo baterako egileak eta abar baldin badira puntuak emakume kopuruaren proportzioa betez banatuko dira.

e) Eskatzailearen kaudimen ekonomikoa eta gaitasun profesionala.(7 puntu).

Puntu horiek esleitzeko kontuan hartuko dira egindako eta estreinatutako film luzeen eta dokumentalen kopurua, txarteldegietako emaitzak, jaialdietan hautatuak izatea eta sariak jaso izana, enpresaren antzintasun urteak, ekoizpen aurreikuspenak, finantza erakundeetako txostena eta azken bi urteetako kontuak.

Eskatzailea Interes Ekonomikoko Taldea (IET) denean, kaudimena taldeko kide den ekoiztetxe independenteak aurkeztuko du. Era berean, ekoiztetxe hori taldeko gehiengodun kidea izango da laguntza eskatzen den unean eta gainera, taldean administrari kargua izan beharko du.

f) Zuzendari hasiberria: Zuzendariaren lehenengo edo bigarren film luzea baldin bada. (2 puntu). Baterako zuzendaritza lana baldin bada puntuak zuzendari kopuruaren proportzioan esleituko dira.

Lehenengo fasearen balorazioan 30 puntu eskuratzen ez dituzten eskariak deialditik kanporatuko dira eta ez dira baloratuko balorazio artistikoa eta kulturala atalean.

20.3. Bigarren fasea: Proiektuaren balorazio artistikoa eta kulturala. (65 puntu).

a) Gidoiaren kalitatea, sormena, orijinaltasuna, egitura, garapena eta bideragarritasun zinematografikoa. (35 puntu).

b) Proiektuak duen interesa. Berriaz baloratuko dira ekimen artistiko berrietarako eskaintzen dituen aukerak eta Arabako lurralde historikoko eta/edo bertako biztanleekiko errealitate kulturalarekiko, sozialarekiko, hizkuntzakoarekiko edo bestelakoekiko dauden aukerak. Balio artistikoa duen ekimen izaera edo Arabako Lurralde Historikoko eta/edo bertako biztanleekiko errealitate kulturalarekiko, sozialarekiko, hizkuntzakoarekiko edo bestelakoekiko dauden aukerak. (20 puntu).

c) Jatorrizko bertsioa euskaraz izatea. (10 puntu). Jatorrizko bertsioa euskaraz dagoela kontuan hartzeko gidioa euskaraz aurkeztu beharko da. Aukeraz, gaztelaniazko itzulpena gehitu ahal izango da Balorazio Batzordeko kideek balorazio lanak errazago egiteko.

Bigarren balorazio fase honetan gutxienez 30 puntu eskuratzen ez dituzten eskariak deialditik kanporatuko dira.

20.4. Egindako balorazioaren oinarria eskatzaileek emandako frogia elementuak izango dira, eta horiek Balorazio Batzordeak egiaztatu eta kontrastatu ahal izango ditu.

21. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

21.1. Gehienezko kopurua ekoizpenaren aurrekontuaren ehuneko 50 izango da, eta muga 20.000,00 eurokoa izango da.

Laguntza jaso dezaketen proiektuetatik azkenak diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa jaso ezin duenean beharrezko kontsignazio ekonomikorik ez dagoelako, bakarrik adjudikatu daitezkeen zenbateko ekonomikoak jasoko du diru-laguntza, Balorazio Batzordearen arabera proiektuaren bideragarritasuna bermatzen baldin bada.

Modalitate horretako aurrekontu zuzkidura bukatzen ez baldin bada proposamenak falta direlako, proposamenean balorazio fasean eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditzen ez dutelako edo aurreko paragrafoan aurreikusitako gertakaria jazotzen baldin bada azken proiektuaren bideragarritasuna bermatu gabe, Balorazio Batzordeak soberan dagoen zenbatekoa 5.000,00 eurora arteko finantzazioa gauzatzeko bideratzea proposatu ahal izango du, gehi hasierako 20.000,00 euroko emakida proposatu ahal izango du aurreikusitako proiektuentzat, ezarritako diru-laguntzaren ehunekora iristen ez baldin badira.

21.2. Ekoizle indibidualak baldin badira laguntza ez da izango ekoizleak egindako inbertsioa baino gehiagokoa.

Ondorio horietarako, ekoizleak egindako inbertsioa izango da norbere baliabideekin, itzuli daitezkeen kanpokoen baliabideekin eta film luzea ustiatzeko eskubide lagapen kontzeptuan jasotakoak. Edonola ere, ez dira ekoizlearen inbertsioak izango jasotako diru-laguntzak eta edozein administrazio, erakunde, enpresa edo sozietate publikok egindako itzuli ezin daitezkeen ekarpenak, horiek zuzenean edo zeharka telebistaren zerbitzu publikoa kudeatzen dutenean.

21.3. Koproduktzioak baldin badira, Arabako Foru Aldundiaren laguntza ezin izango da ekoiztetxe eskatzailearen partaidetza erreala baino ehuneko 50 baino gehiagokoa izan, eta ez du ekoizle eskatzailearen edo deialdi honekin bat eginez koproduktore taldearen inbertsioaren ehuneko 50 gaindituko.

Ekoizle eskatzaileak gutxienez ekoizpenaren ehuneko 25 ere izan beharko du, edo deialdi honen arabera onuradunak izan daitezkeen koproduktoreak baldin badira, bakoitzaren partaidetzaren batura.

22. artikulua. Egikaritze epeak

22.1. Laguntza jakinarazten denetik onuradunak gehienez ere hiru urteko epea izango du lana bukatzeko, lehenengo kopia estandarra jasotzea barne.

22.2. Filmaketaren hasiera eta bukaera egunak Ekonomia Garapeneko Zuzendaritzari jakinaraziko zaizkio. Filmaketa jakinarazpena baino lehenago edo jakinarazi eta gutxira hasten baldin bada horren berri emango da jakinarazpena gertatu eta 10 egun balioduneko epean.

23. artikulua. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea.

23.1. Lehenengo ordaintetan ehuneko 25 ordainduko da. Justifikatu beharreko aurrerapena izango da eta emakida ebazpena onartu ondoren ordainduko da.

23.2. Gainerako ehuneko 75a bigarren ordainteta batean emango da Ekonomia Garapeneko Zerbitzuan dokumentazio hau aurkeztu eta gero 2020ko urriaren 31ra arte. Epe hori beste urtebetez luzatu ahal izango da behar bezala justifikatutako kasuetan:

- a) Behin betiko aurrekontua eta ordainteta egutegia.
- b) Proiektuaren kostu osoa ordaintzeko finantzazioaren ehuneko 50 dagoela egiaztatzen duen agiria.
- c) Langile artistikoekin (aktore protagonistak) eta teknikariek (taldeko zuzendariak eta nagusiak) sinatutako kontratuak.

d) Beste laguntza eta/edo diru-laguntza batzuk jaso izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

e) Koprodukzio kontratu irmoak, hala badagokio.

f) Filmaren ustiapen eskubideen kontratu irmoak.

g) Ekoizpena gauzatzeko aldian ekoiztetzeko langileak altan egongo direnari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

h) Finantzazio planaren egiaztapena. Horretarako, honako jatorrizko agiriak edo horien fotokopia konpultsatuak aurkeztuko dira:

– Telebista kateekin eta/edo hedatze sozietateekin sinatutako kontratuak.

– Onuradunak finantzazio planean kontsignatutako funts propioak dituela eta horien titularrak dela egiaztatzen duen bankuaren agiria.

– Onuradunak filma finantzatzeko jasotako bestelako laguntzen edo diru-laguntzen egiaztapena.

– Ekoizpenaren kostuak ordaintzeko diru-sarrerak sortzen dituzten bestelako finantzazio bideak.

i) Egutegi eguneratua eta filmaketa plana, denbora eta kokapenak adieraziz. Animazio lanak baldin badira, animazio estudioarekin sinatutako kontratu irmoa.

j) I. eranskineko eguneratutako erantzukizunpeko adierazpena.

23.3. Emandako laguntza justifikatuta dagoela onartzeko onuradunak Ekonomia Garapeneko Zerbitzuan honako dokumentazioa aurkeztu beharko du laguntza jakinarazi eta hiru urteko epean:

a) Arabako Foru Aldundian materiala utzi direnaren ziurtagiria. Horren bitartez egiaztatuko da Arabako Foru Aldundian lanaren kopia bat utzi dela Digital Cinema Package, pendrive edo DVD formatuan estreinatutako merkataritza bertsio bakoitzeko, elkarrizketa zerrenda jatorrizko bertsioan eta bikoizketa hizkuntza guztietan, gide edo pressbook-a, gutxienez iragarkien, trailerren, making of-aren edo lana promozionatzeko ekoiztetxeak egindako gainerako dokumentazioaren 2 kartel, sei argazki eta DVDko kopia bat, interesekoak direnean Arabako Foru Aldundiaren film ondarea kontserbatzeko eta hedatzeko; edonola ere, horiek ez dira erabiliko merkataritza helburuetarako.

b) Kontu ikuskatzaileak emandako txosten berezia. Bertan egiaztatuko da filmaren kostua, ekoizleek egindako ekarpenak, titulartasun kuotak ekoizpenari dagokionez eta laguntza eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioan adierazitako Arabako Lurralde Historikoaren gutxienerako enpresa eta giza baliabideen ehuneko batek denaren egiaztapena.

23.4. Kontuan izan beharko da emandako dirulaguntza aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren portzentaje bat dela; beraz, proiektuaren azken kostua aurrekontu hori baino gutxiago bada, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da. Albo batera utzi gabe 21.1. artikulua aplikatzea.

II. atala

Film laburrak ekoizteko laguntzak

24. artikulua. Laguntza jaso dezaketen jarduerak

24.1. Modalitate horren barnean laguntzak emango dira edozein hizkuntzatan film labur zinematografikoak egiteko.

24.2. Horretarako, film laburrak izango dira edozein euskarritan egindako filmak, eta 60 minutu baino gutxiagoko gomendatutako iraupena dutenak.

24.3. Onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenaren aurrekontuaren ehuneko 30ekin baliokidea den ehunekoa gutxienez Arabako Lurralde Historikoan bizi diren edo ezarrita dauden pertsona fisikoek eta juridikoek egindako lanetarako erabili beharko du. Koprodukzioa egonez gero, ehuneko 30 hori onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza kuotari aplikatuko zaio.

25. artikulua. Balorazio irizpideak

25.1. Modalitate honetako eskariak honako irizpide eta puntuekin bat eginez baloratuko dira:

a) Ekoizpen proiektuaren balorazioa. (30 puntu):

– Aurrekontuaren eta finantzazio planaren egokitasuna. (10 puntu).

– Filmaketa Arabako Lurralde Historikoan egitea. (10 puntu).

Puntu horiek filmaketa Arabako Lurralde Historikoan gauzatutako egunen arabera banatuko dira, aurreikusitako filmaketaren iraupen osoa kontuan hartuz.

Animazio lanak direnean filmaketa egun bat animazio estudioan lan egindako egun bat izango da eta Araban filmatu dela kontuan hartuko da animazio estudio horren egoitza soziala eta fiskala Arabako Lurralde Historikoan kokatuta baldin badaude.

– Eraginpeko enpresa eta giza baliabideak. (10 puntu).

Ekoiztetxearen curriculum, zuzendariarena eta gidoilariarena. Kontuan hartuko dira aurretik egindako lanak eta baloratu egingo dira aurretik egindako proiektuak, jasotako sariak eta komunikabide espezializatuetan jasotako kritikak eta txarteldegietako emaitzak. Ekoiztetxei dagokienez, aurreikusitako etorkizuneko proiektuak ere baloratuko dira diru-laguntza eskaera aurkezten den unean horiek duten sendotze mailaren arabera (10 puntu).

Koprodukzioa, baterako zuzendaritza edo baterako egiletza bada, modu proportzionalan kontuan hartuko dira.

b) Proiektuaren interes orokorra. (25 puntu).

Berriaz baloratuko dira ekimen artistiko berrietarako eskaintzen dituen aukerak eta Arabako Lurralde Historikoko eta/edo bertako biztanleekiko errealitate kulturalarekiko, sozialarekiko, hizkuntzakoarekiko edo bestelakoekiko dauden aukerak.

c) Modu zinematografikoan garatuko den gidoiaren kalitatea. (20 puntu).

d) Finantzazio edo finantzazio pribatuko maila. (13 puntu).

Laguntza publikoak ez diren finantzazio iturriak baloratuko dira, eta bereziki kontuan hartuko da ekoiztetxe eskatzailearen enpresa arriskua.

Autofinantzazio altuena duenak gehieneko puntuazioa jasoko du, eta gainerakoek proportzionalki jasoko dituzte puntuak.

e) Emakumeek zuzendaritza, ekoizpen exekutibo eta/edo gidoi lanetan parte hartzea. (7 puntu):

– Zuzendaria emakumea bada. (3 puntu).

– Ekoizle exekutiboa emakumea bada. (2 puntu).

– Gidoiaren idazlea emakumea bada. (2 puntu).

Baterako zuzendaritza, koprodukzioa edo baterako egileak eta abar baldin badira puntuak emakume kopuruaren proportzioa betez banatuko dira.

f) Jatorrizko bertsioa euskaraz izatea. (5 puntu).

Jatorrizko bertsioa euskaraz dagoela kontuan hartzeko gidoia euskaraz aurkeztu beharko da. Aukeraz, gaztelaniazko itzulpena gehitu ahal izango da Balorazio Batzordeko kideek balorazio lanak errazago egiteko.

25.2. Gutxienez 50 puntu eskuratu beharko dira diru-laguntza jasotzeko, eta 50 puntu eskuratzen ez dituzten eskariak baztertu egingo dira.

25.3. Egindako balorazioaren oinarria eskatzaileek emandako froga elementuak izango dira, eta horiek Balorazio Batzordeak egiaztatu eta kontrastatu ahal izango ditu.

26. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

26.1. Diru-laguntza aurrekontuaren ehuneko 60koa izango da, eta gehienezko zenbatekoa 10.000,00 eurokoa izango da.

26.2. Laguntza koprodukzio baterako eskatzen bada, Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza ez da sekula ere ekoiztetxe eskatzailearen partaidetza errealearen ehuneko 60 baino gehiagokoa izango. Horrez gain, ekoizle eskatzaileak gutxienez lanaren ehuneko 25 izan beharko du edo deialdi honekin bat eginez onuradunak izan daitezkeen koproduktoreak baldin badira, bakoitzaren partaidetzen batura.

26.3. Laguntza jaso dezaketen proiektuetatik azkenak diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa jaso ezin duenean beharrezko kontsignazio ekonomikorik ez dagoelako, bakarrik adjudikatu daitezkeen zenbateko ekonomikoak jasoko du diru-laguntza, Balorazio Batzordearen arabera proiektuaren bideragarritasuna bermatzen baldin bada.

27. artikulua. Egikaritze epeak

27.1. Laguntza jakinarazten denetik aurrera, onuradunak 2020ko urriaren 31ra arteko epea izango du lana bukatzeko, lehenengo kopia estandarra eskuratzea barne. Salbuetsi egingo dira justifikatutako kasuak.

27.2. Filmaketaren hasiera eta bukaera egunak Ekonomia Garapeneko Zuzendaritzari jakinaraziko zaizkio. Filmaketa jakinarazpena baino lehenago edo jakinarazi eta gutxira hasten baldin bada, horren berri emango da jakinarazpena gertatu eta 10 egun balioduneko epean.

28. artikulua. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea

28.1. Film laburrak ekoizteko laguntzak justifikatu beharreko aurrerapen gisa ordainduko dira. Diru-laguntzaren ehuneko 75 emakida ebazpena onartu ondoren ordainduko da, eta gainerako ehuneko 25a diru-laguntzaren helburua justifikatu ondoren. Horretarako, atal honetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

28.2. Emandako laguntza justifikatuta dagoela ulertzeko beharrezkoa izango da onuradunak Ekonomia Garapeneko Zerbitzuan 2020ko urriaren 31 bukatu aurretik (egun hori barne) honako dokumentazioa aurkeztea, bereziki zailak diren kasuetan salbu:

a) Arabako Foru Aldundian materiala utzi izanaren ziurtagiria. Bertan egiaztatu beharko da lanaren kopia bat utzi dela Digital Cinema Package, pendrive edo DVD formatuan estreinatutako merkataritza bertsio bakoitzari dagokionez, jatorrizko bertsio elkarrizketak eta bikoizketa hizkuntza bakoitzekoak, gidak/pressbook-ak edo dokumentazioa gordetako webguneen estekak, sei kartel eta sei argazki (fotogramak eta argazki finkoak) eta iragarkien, trailerren, making of-aren edo ekoiztetxeak egindako promozio dokumentazioaren kopiak, Arabako Foru Aldundiaren film ondarea kontserbatzeko eta hedatzeko interesekoak baldin badira. Edonola ere, horiek ez dira erabiliko merkataritza helburuetarako.

b) Kontu ikuskatzaileak emandako txosten berezia. Bertan egiaztatuko da film laburraren kostua, ekoizleek egindako ekarpenak, titulartasun kuotak ekoizpenari dagokionez eta laguntza eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioan adierazitako Lurralde Historikoaren enpresa eta giza baliabideen ehunekoak bete denaren egiaztapena.

Txosten horren ordez Film baten kostuen aintzatespena eta ekoizlearen inbertsioaren aintzatespena arautzen duen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren 7. artikuluan aurreikusitako dokumentazioaren jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztu ahal izango dira.

c) 24.3. artikuluan zehaztutakoa betetzen dela egiaztatu beharko da.

28.3. Kontuan izan beharko da emandako dirulaguntza aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren portzentaje bat dela; beraz, proiektuaren azken kostua aurrekontu hori baino gutxiago bada, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da. Albo batera utzi gabe 26.1. artikulua aplikatzea.

IV. kapitulua.

Gidoiak idazteko laguntzak

29. artikulua. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduketak

Modalitate honen barne laguntzak emango dira fikziozko eta animaziozko film luze zinematografikoen gidoiak idazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzita daudenak. Ezingo dute diru-laguntzarik jaso guttiz garatutako gidoiek, eta hala, bakarrik gidoiaren tratamendua aurkeztea onartuko da.

30. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Agiri hauek anonimoak izan beharko dira.

Paperean aurkeztu beharreko dokumentaziorako bi gutun-azal aurkeztuko dira. Dokumentazioa euskarri digitalean (pen drive edo CD) ere aurkeztu ahal izango da.

A gutun-azala (A/ Pen drive-a edo CD-a):

Gutun-azalaren barnean lelo identifikatzailea idatziko da, eta gutun-azalaren kanpoan edo barnean ez da egilearen izenik idatziko. Barnean honako dokumentazioa egon beharko da:

- a) Gidoi proiektuaren argumentu sinopsia, 1 eta 3 orrialde artekoa.
- b) Gidoi proiektuaren tratamendu sekuentziatua, 15 eta 30 orrialde artekoa.
- c) Elkarrizketatutako sekuentzia, 3 eta 5 orrialde artekoa.

d) Proiektuaren azalpen memoria. Bertan adierazi beharko da proiektua zergatik den intereskoa eta proiektuari eman nahi zaion izaera, 1 eta 3 orrialde artean.

B gutun-azala (B/ Pen drive-a edo CD-a):

A gutun-azaleko lelo identifikagarri berdina idatziko da kanpoan. Barnean, betetako eskaera inprimakiarekin batera dokumentazio hau egon beharko da:

- a) NANaren fotokopia.
- b) Jarduera profesional gisa gidoiak idazteko beharrezkoa den JEZe an alta emanda dagoenaren ziurtagiria.

c) Gidoilariaren ibilbide artistikoa.

d) Erantzukizunpeko adierazpena. Bertan jaso beharko da zinema aretoetan erakusteko film luzeren baten gidoilaria izan den, ekoizpenaren izenburua eta urtea adieraziz (VI. eranskina), eskatzailearen izenean Jabetza Intelektualaren Erregistroan erregistratutako gidoi zinematografikoak egiaztatzen dituen dokumentazioarekin batera.

e) Helburu berdinerako beste administrazio publiko batek edo erakunde pribatu batek eman dezakeen bestelako laguntzarik jaso ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina).

f) Aurkeztutako tratamendua jatorrizko proiektua dela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena, egun horretara arte gauzatu ez den proiektua dela adierazten duena. (VI. eranskina).

g) Jabetza Intelektualaren Erregistroan sailkatutako eta erregistratutako film laburretan gidoilaria dela egiaztatzen duen dokumentazioa eta jaialdi ezberdinetan film labur horiek eskuratutako sariak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

A gutun-azaleko gidoi proiektuak kalifikatu ondoren eta egileen izenak jakin gabe, B gutun-azala irekiko da eta egileari eta bere ibilbideari buruzko alderdi guztiak kalifikatuko dira.

31. artikulua. Balorazio irizpideak

31.1. Modalitate horretako eskariak bi fasetan baloratuko dira, ondoren zehaztuko diren irizpideen eta baremoen arabera:

31.2. Lehenengo fasea: Gidoi proiektuaren balorazioa. (80 puntu):

a) Aurkeztutako proiektuaren orijinaltasuna eta tratamenduaren kalitatea. (45 puntu).

b) Proiektuak duen interesa. Bereziki baloratuko dira proiektuaren bideragarritasuna eta proiektua egikaritzeko aukera errealak, gaiaren interesa eta interes geografikoa eta proiektuan egindako genero ikuspegia. (25 puntu).

c) Euskaraz idatzita egotea. (10 puntu).

Gidoiaren tratamendua euskaraz aurkeztuz gero eta 10 puntuak eskuratuz gero, gidoi osoa euskaraz aurkeztu beharko da justifikazio unean.

31.3. Bigarren fasea: Gidoilaria baloratzea. (20 puntu):

Baterako gidoilariak baldin badaude, alderdi hori kontuan hartuko da fase honetako balorazioan, eta puntuazioak modu proportzionalean banatuko dira.

a) Gidoilariaren ibilbide artistikoa. (10 puntu).

0,50 puntu emango zaizkie jaialdietan erakutsitako film laburren gidoiei, eskatzailea gidoilaria izan bada, gehienez ere 3 puntura arte.

2 puntu emango zaizkie zinema aretoetan erakusteko aukeratutako film luzeen gidoiei, eskatzailea gidoilaria izan denean.

b) Emakume batek idatzia izatea. (10 puntu).

Baterako egileak izan baldin badira puntuak emakume kopuruaren proportzioa betez banatuko dira.

31.4. Gutxienez 50 puntu eskuratu beharko dira diru-laguntza jasotzeko, eta 50 puntu eskuratzen ez dituzten eskariak baztertu egingo dira.

32. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

32.1. Diru-laguntza 10.000 eurokoa izango da.

32.2. Modalitate honetan aurreikusitako laguntzak ez dira bateragarriak helburu berdina duten eta beste erakunde publiko edo pribatu batek eman ditzakeen laguntzekin.

33. artikulua. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea.

33.1. Gidoiak idazteko laguntzen ordainketa justifikatu beharreko aurrerapen gisa egingo da. Hala, ehuneko 75 emakida ebazpena onartu ondoren ordainduko da eta gainerako ehuneko 25a diru-laguntzaren helburua justifikatu ondoren. Horretarako, atal honetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

33.2. Emandako laguntza justifikatu dela ulertuko da onuradunak Ekonomia Garapeneko Zerbitzuan 2020ko urriaren 31 aurretik (egun hori barne) bukatutako gidoi zinematografikoaren ale bat aurkezten duenean paperean edo euskarri digitalean (pdf formatuan), baita Jabetza Intelektualaren Erregistroan izena emanda dagoela adierazten duen egiaztagiraren kopia eta I. eranskineko eguneratutako erantzukizunpeko adierazpena aurkezten dituen ere.